

· GOGORATU BEHARREKOA ·

POLIZIA BORTIZKERIAK

mail : desarmons-les@riseup.net

WEBGUNEAK

www.g7borroka.info

Txakurren eta manifestarien posizioak biltzen dituen mapa interaktibo parte hartzailea: mediamanif.com

<https://bayonne.sous-surveillance.net/>

Autodefentsa juridikoari buruz Interneten aurki daitezkeen informazioak :

rajcollective.noblogs.org

E-MAIL KONTAKTUAK

antirep-g7-btz@riseup.net

caisseantirepressionbaiona@riseup.net


MONEY! DIRUA! SOSA!

Errepresioa kario da!

Elkartasun kutxa bat sortu da, justiziako xahubideak estaltzeko. Honi esker, defentsaren kalitate ona bermatzen ahalko da, atxilotutako G7ren aurkako manifestarien diru baliabideak edozein izanik ere (justizian ohikoa denaren kontrara).

DIRUZ LAGUNDU!

Hello Asso-ren webgunea « constitution d'une défense collective efficace pour le g7 de Biarritz »



ERREPRESIOAREN KONTRAKO

KOLEKTIBOAREN TEL ZBK

(errotuladorearekin zure besoan idatzi)

+34 943 09 06 30

(gainzergarik gabeko telefonogunea)

(interpreteak: euskara – français – castellano – english – deutsch – italiano – русский)

(telefonora deitu edota SIGNAL aplikazio bidez idatzi)

Telefono linea horiekin harremanetan jarri, baldin eta:

- * interpelatutako pertsona baten hurbilekoa bazara
- * atxiloketa baten lekuko bazara
- * polizia bortizkerien biktima edo lekuko bazara
- * abokatuak interesa ditzaketen bideoak badituzu



ERREPRESIOAREN
KONTRAKO KOLEKTIBOA
BIARRITZ : G7, 2019

2019ko G7 euskal lurraldean antolatu dute. Zinikoki, « desberdintasunen aurkako borroka » izendatu dute. Hala, G7ak probokazioak biderkatzen ditu.

Lehenik, Euskal Herriaren burujabetasunaren aldeko borrokaren historia luzearen aurka: G7ren denboran, bote-rearen harrokeriak berriz ere gure lurraldea zapalduko eta militarizatuko du. Indar errepresiboen ezohiko hedapena bake prozesuari egiten zaion enegarren umiliazioa da. Eta mugaren hestea herritarrei egiten zaien beste aginte abusu bat da: herritarrak ez dira lurraldean libreki ibiltzen ahalko.

Gainera, azken hiru urteetan Frantziako estatuaren karrikara atera diren pertsona guzietan egiten zaien probokazio larria da. 2016ko udaberritik, ezinegon politiko historiko batean murgilduta gaude, desberdintasun sozialen aurkako hainbat errebolta izan dira eta biztanleak masiboki mobilizatu dira: lehen eta bigarren lan legearen kontrako mugimendua, polizia bortizkerien kontrako mugimendua, jaka horiak eta abar. Aurrekaririk gabeko estatuaren bortizkeriari aurre egin diote. Jaka horien sei hilabeteko mugimenduan, frantses poliziak azken hogeitun urteetan bezainbeste jende mutilatu ditu.

Azkenik, desberdintasunen aurka borrokatzeko aitzakiarekin mugalde honetan munduko agintarien arteko asteburua antolatzea probokaziorik gorena da. Izan ere, beren muga horiek herriak zatitzen dituzte, eta bereziki Mediterraneoan hezurtegi erraldoia bilakatzen ari da. Eta beren politiken eta neurrien ondorioz, desberdintasunak azkarki emendatzen ari dira.

G7ren kontrako erresistentzia antolatzen ari da. Biarritzen elkartuko den gaizkile elkartearen kontrako erresistentzia antolatzen ari da. Eta halako mespretxua erakusten duen boterearen erasoaren aurrean, premiazkoa da zer gerta ere prest egotea. Gaur egun, ezin da errepresioa kontuan hartu gabe pentsatu eta ekin. Errepresioa da gure garaiaren ezauzgarri nagusia. Horregatik sortu dugu laguntzailez osaturiko kolektibo bat, errepresioaren aurka gure buruak antolatzen eta ahal bezain ongi babesteko.

- Telefonoaren **PIN** kodea eskatzen badizute, esan dezakezu ahantzi duzula edo telefonoa hurbileko batena dela. Baina, hor ere, **defentsarik onena isilik egotea da.**

ATXILO ALDIAREN ONDOTIK


- **Jaukimendurik gabeko askatasuna** legearen orotaraztearekin ala gabe. Aske izango zara eta atxilo aldia zigor bezala kontsideratuko da. Geroagoko dei bat eskura dezakezu.

- **Askatasuna jaukimenduekin** : Geroagoko dei bat eskuratuko duzu auzipetua izateko, eta dei hau berehala jasoko duzu edo uxer batek geroago bidaliko dizu.

- **Auzitegira jaukitzea** : auzitegitik pasako zara, prokuradore baten aitzinetik. Hark erabakiko du edo zu askatzea, edo geroagoko auzi baten terako deitzea (kontrol judizialarekin edo gabe), edo berehalako auzia egitea (« berehalako agertzea », adingabeentzat ez dena existitzen).

- **Berehalako agertzea** (comparution immédiate) : prokuradorearekin elkarritzeta izan eta egunean berean edo biharamunean epaile baten aurretik pasako zara. Berehalako prozedura bat da, ez du inoiz defentsa ongi prestatzeko ahala ematen eta usu

zigorrek bortitzak dira. Defentsa prestatzeko epe bat eska dezakezu (eta maiz eskatzea hobe da). Orduan, behin-behineko atxilotzea (presondegia) saihesteko, ordezkaritza bermeak aurkeztu beharko dituzu (bizitegiaren, lanaren eta abarren frogak - ikus « manifa baino lehen » parrafoa).



ATXILOKETA KASUAN

- **Nortasun kontrol** batek gehienez 4 ordu iraun dezake.

- 4 ordu eta gero, **atxilo aldi**an zaude (garde-à-vue). Atxilo aldiak interpelazio momentutik 24 ordu iraun dezake. Eta 48 ordu arte luza daiteke (salbu gaizkile-taldearen edo terrorismoaren kasu berezietan, non 96 eta 144 ordu artean iraun baitezake). Zuk hala eskaturik, polizia hurbileko norbait eta zure enplegatzailea abisatu behar ditu.

- **Identifikazioa** : legeak zure izen-deiturak, sorteguna eta helbidea ematera behartzen zaitu, baina ez da inolako zigorririk aurreikusten hori egiteari uko egiten badiozu. Nortasun erreala bat usurpatzea delitua da. Baina asmatutako nortasun bat ematearekin isun soil bat arriskatzeko duzu. Eta, gainera, ez da egoera-zibilaren fitxategi zentralik existitzen poliziarik pertsona baten existentzia errazki egiaztatzeko ahala emango liokeenik. Aldiz, gida baimena fitxategi « positiboa » da; hau da, berehala egiaztatu daiteke.

- **DNA, hatz markak, argazkiak** : « seinaletika » emateari uko egin dakioke. Delitua da (isun edo gibelapenezko zigor arriskua), baina bizi osorako fitxaturik egotea sahesteko balio du. Behin DNA harturik (ahoa kotoi txotx bat sartuta), gutienez 40 urtez atxikiko dute Europako estatu guzietan. Eta, hala, zure familiaren DNA guziaz fitxategi batean edukiko dute.

- **Medikua** : atxilo aldi hasieran, mediku bat ikusteko eskubidea dago, urririk, zauriturik ez bazaude edo tratamendurik hartzen ez baduzu ere. Denbora pasatzeko eta beren makineria geldia gozatzeko aukera da! Gainera, gerora baliagarri izan daiteke, atxilotze denboran bortizkeriak jasaten badituzu.

- **Abokatua** : Entzunaldia (polizien galderak) baino lehen, 30 minutuz abokatua bakarrik ikusteko eskubidea duzu (zuk aukeratua edo aukeratu gabea). Aholkatzen dizugu errepresioaren kontrako kolektiboarekin lan egiten duen abokatuaren bat aukeratzea: lan ona egiten dute eta elkartasun kuxkak pagatzen ditu. Informatu eta beren **izenak, jatorria** (hiria) eta telefono zenbakia gogoz ikasi edo idatzi. Polizia-etxeak abokatu horiekin harremanetan jartzeari uko egiten badio, entzunaldiaren aktan idatzarazi eta isilik egon.

- **Entzunaldia** : isilik egotea eskubide bat da. Galdeketa denboran, funtsezkoa da galdera guzietan, hau da, galderarik hutsalenari ere eta noski beste manifestari batzuei buruzko galderei, beti gauza bera erantzutea: « **EZ DUT EZER ESATEKO** » (« **JE N'AI RIEN À DÉCLARER** »). Abokatu batek kontrako esaten badizu, aholku txarrekoa da. Eta poliziak atxilo aldiaren eta entzunaldian dioena ez da egia: hitz egiteak ez zaitu lehenago libratuko. Momentuan ez dakizu zure txostenean zer dagoen. Beraz, zuk esandako gauza guziaz zure kontra edo beste manifestariaren kontra balia ditzakete. Aktak izenpetzea ere ez da derrigorrezkoa. Izenpetzeak esan nahi du behin betiko onartzen duzula dena ongi pasa dela.

ZER DA ERREPRESIOAREN KONTRAKO KOLEKTIBOA ?

Laguntzaile osaturiko kolektibo bat da. Honakoa egiten du: Zure eta gure eskubideei buruzko informazioa hedatzen du. G7ren aurkako borrokaren parte diren abokatuarekin harremanetan jartzen zaitu. Justiziako gastuei aurre egiteko elkartasun kuxka bat antolatzen du. Errepresioaren jarraipena egiten du eta egoera azaltzen du.

ZERGATIK SORTU ERREPRESIOAREN KONTRAKO KOLEKTIBOA?

Errepresioaren kontrako kolektiboa profesionalak ez garen kideok osatzen dugu. Abokatu aktibista batzuekin antolatu gara, G7 garaiko salbuespeneko polizia eta justizia baliabideari aurre egiteko: 15 000 polizia baino gehiago Biarritzen inguruan, Parisetik espreski etorritako epaileak eta prokuradoreak gau eta egun eta igandean ere « justizia egiteko », manifestaldiak eta zirkulazio askatasuna mugaturik, geltokiak, aireportuak eta mugak hetsirik... Indar errepresiboek erasotzen gaituztelarik eta justiziak bakartzen gaituztelarik, elkartasuna da isolamendu prozesua gaindi dezakeen gauza bakarra.

ERREPRESIOAREN KONTRAKO KOLEKTIBOAREN JARDUERA ETA PRINTZIPIOAK

Poliziarren eta justiziaren funtzionamenduari buruzko informazio esku-orriak eta liburuxkak hedatzen ditugu. Izan ere, borroka sozialetan ere, maiz poliziarren eta justiziaren funtzionamendua ez dira ongi ezagutzen, edo gehiago, guziz eze-

zagunak dira... « Autodefentsa juridikoa » gaiari buruzko formakuntza tailerak antolatzen ditugu ere, justiziaren makineria hobeto ulertzeko eta honen aurrean autonomoagoak izateko.

Errepresioaren kontrako kolektiboa defentsa kolektiboaren printzipioen arabera antolatzen da. Horrek erran nahi du defentsa ez dela borroketarik bereizten, eta, noski, defentsak ez dituela beste auzipetu batzuk barnago hondoratzen. Beste gauza bat argi: ez dugu indar errepresiboen eta talde faxisten alde agertzen den inor laguntzen. Baina, hortik kanpo, edozein pertsona babesten dugula erran genezake, hobengabeak eta erregabeak barne. Bestela erranda, « manifestari onen eta txarren » arteko bereizketa egiteari uko egiten diogu irmoki. « Usteko bakezaleen eta bazter nahasleen » arteko bereizketa faltsuari uko egiten diogu. Gu ez gara epaileak eta borrokak zatitzeko balio duen estatuaren erretorika zaharra gure egiteari uko egiten diogu.

Pobreak ez dira ordena soziala mantentzeko balio duen klase justizia honetan katebegi bat baizik. Pobreak beti dira gaizkien defendatuak eta gehien atxilotuak. Hori dela eta, errepresioaren kontrako kolektiboak elkartasun kuxka bat antolatzen du, justiziako gastu anitzak diruz laguntzeko eta interpelatutako pertsona guzietan proposatzen dizkiegun abokatuak dohainik izateko. Elkartasun kuxkan dirua sartzeko gomita luzatzen dizuegu, ahal bezain atxilotutako jende gehien lagun dezagun.

Hona ondotik gure ustez errepre- sioari aurre egiteko jakin beharreko zenbait gauza

KONTRA GAILURRA BAINO LEHEN

- E-mail kontu bat sortu, zeinetara abo-
katuak sarbidea izan baitezake atxiloke-
ta kasuan. « Ordezkaritza bermeak »
(garanties de représentation) igo e-mail
postara. Atxilo aldiaren (garde-à-vue)
ondotik berehalako auzia gertatzen
bada, epaileari aurkeztu beharreko
dokumentuak dira. Zure egoera pertso-
nala frogatzen duten dokumentuak dira
eta epailea konbentzitzen ahalko dute zu
libre uztea zure auzia geroago gertatze-
ko eta zure defentsa hobeto prestatzeko
(berehalako auzian maiz zigor bortitza-
goak ematen dira).

Adibideak: nortasun agiria, bizitegiaren
frogagiria – kontratua, ordainagiria,
fakturak –, egoera pertsonala – lan
kontratua, soldata agiria, kontratazio
hitzarmena, eskolatzeko ziurtagiria – fami-
lia egoera – familiako liburuxka – ...)

- Kasu drogen eta arma modura kontsi-
dera daitekeen edozerren jabe izatearen
ondorioei.

- Geltokiak (tren eta autobus geltokiak)
eta aireportuak hetsiak izanen dira 23tik
goiti, Biarritzen, Baionan eta ingurue-
tan. Nola iritsi ongi begiratu.

- Lurraldean gertatzen diren kontrolen
eta miaketan berri izan. Horretarako,
Media-Manif webgunea begiratu. Den-
bora errealean txakurren eta manifesta-
rien posizioen mapa egiten du.

MANIFA BAINO LEHEN

- Ez bakarrik etorri. Manifestaldi ondo-
ko hitzordu bat zehaztu.

- Abokatu baten izena eta legal team-
aren telefono zenbakia jakin edo idatzi.

- Kasu, atxiloketa kasuan, segurta-
suna neurri berezirik hartu ez baduzu
txakurrek zure telefonoaren eduki
guzietara sarbidea izan dezakete.

Ez ekarri agendarik, helbide
liburuxkarik, USB gakorik
edo hobendun egiten
zaituen dokumenturik.
Teorian, ez da derrigor-
rezkoa nortasun agiria
edukitzea. Hobe da
diru idorra edukitzea
banku txartela baino.

- Tratamenduak hartzen
badituzu, sendagaiak eta
zure izenean den mediku
ordenantza hartu.

- Gasen aurka: serum fisiologikoa,
Maalox edo Xolaam botilak (farmazian
aurkitzen diren triparentzako senda-
gaiak, urean diluitu behar direnak).
Babesteko materiala: brikolaje super-
merkatuetan badira inpaktuaren kontrako
begitako maskarak. Igerilekuko betaurre-
koak baino babes hobea eskaintzen
dute (igerilekuko betaurrekoek gasen
kontra babesten dute bakarrik).
Arnasarentzat, maskara edo lepokoa,
zure ohituraren arabera.



MANIFA DENBORAN

- Lasai egon eta elkarrekin ibili. Jende
lerro trinkoetan zu interpelatzea zaila-
goa da. Elkartasuna erakutsi.

- Atxiloketak: elkar lagundu! Atxiloketa
saiakera bati aurre egin diezaiokezu
atxilotua harrapatuz eta tiratuz eta
inguruko jendeari laguntza galdetuz.

Kasu, zu ere ez zaitzate harrapa!

Ezin baduzu ezer egin, atxilo-
tuari abokatu baten izena
oihukatu. Eta atxilotzen
bazaituzte, lekukoei zure
izena oihukatu. Hala,
lekukoek zure izena
ematen ahalko diote
erreprezioaren kontra-
ko kolektiboari.

- Poliziak filmatzen du.
Kamara profesional eta
amatur anitz dago. Zure
burua tapatzea baliagar-
ri izan daiteke, lehenik ez
zaitzaten fitxa eta bigarrenik elkar
babesteko. Ekintzak burutzen dituztenak
disimulatzeko modu bat da ere. Kasu,
badira ezaugarri batzuk (jaka, buruzapi,
txapel eta abar) poliziarik norbait errazki
aurkitzeko eta ondotik identifikatzeko
ahala ematen diotenak.

- Gas isurketen kasuan, lasai egon,
poliki arnasa hartu, eta jasanezina bada,
ikaratu gabe urrundu. Efektuak ez du
luzaz irauten. Serum fisiologikoak eta
Maalox edo Xolaam botilek efektua

arintzen dute. Eskuzko gasen kasuan,
hobe da horiek xukatzea ura gehitzea
baino.

- Granadak: mota asko daude, baina,
edozein egoeratan ez da inoiz horiek
biltzen eta botatzen saiatu behar.
Ahalaz, gutienez bi metroko segurtasun
distantzia mantendu.

- Gomazko piloten jaurtigailuek (LBD -
lanceurs de balle de défense) gomazko
pilotak bidaltzen dituzte 40 metrora.
Pilotek zauri larriak eragin ditzakete.
Txakurren artean jaurtitzailerak non den
aurkitzen saia zaitzeteke, tiroak aur-
reikusteko. Banderola sendotuak piloten
aurre egiteko beste modu bat dira.

- Telefonoz (dei, SMS) ez inoiz komu-
nikatu zure aurka edo beste pertsona
baten aurka erabil daitekeen informa-
ziorik. Telefonoa itzali interpelazio baten
arriskuan zarela sentitzen baduzu eta
SIM txartela kendu har ez dezaten.

- Batzuetan baliagarri da arropaz aldatu
ahal izatea, inoiz ez baitakigu manifa
bat nola iragan daitekeen. Gainera,
duela gutxi, polizia markagailu kimi-
koak erabiltzen hasi da. Markagailu
kimiko horiek begiekin ikusezinak dira.
Ultramoreekin bakarrik ikus daitezke.
Eta hainbat hilabetez jantzietan egoten
dira, eta ondorioz manifestaldi batean
parte hartu duzula justifikatzeko balio
dezakete.

- Zauri larrien kasuan, karrikako
medikuak deitu eta « MEDIKU » hitza
oihukatu.